

ZORNOTZA LEENAGO

Bizkaiaren biotza lez dogu Zornotza. Toki zoragarria, naiz emendik naiz andik begiratu. Olz, Bizkargi, Aramotz, Mugarra ta Anboto ditu begirale zintzo; beti zutik eta aintzatsu. Ibaizabal ibai ederra, leen beintzat; aspaldian, zoritxarrez, guztiz loi ta zikin jatorku Durango aldetik. Zorioneko fabrikak eta paperolak.

LUR-ALDEZ, EDER


Juan E. Delmasek, 1864-ean, Zornotzako kondaira zeatzasunak emoterakoan, au iñoa: «Bere muga barruak luzean legua bi artzen ditu, zabalean bat eta erdi ta Itzul-inguruka bost eta erdi; ta euren larre onez bateriko mendi sail ugariak dagoz, baita metal-ur gozoak eta iru suzenetan zabalduta, au da, Dudean, Boroan eta Zubiaur plazan, 2.517 arima. Zubiaur auzotegi au plaza eder batek eta etxe moltzo bik osotzen dabe, ta plazatik zear doa Bilbaotik Gernikarako bidea ta etxeen artetik zear Bilbaotik Durangorakoa; plazaren eldu baiño leenago dagoanetik, barriz, Zornotzatik Lemonarakoa, Txilboketa izenez geiago ezagutua».

Zornotzak antxiña parroki bi eukozan. Gaurkoa, guztiz txalro ta ederre, Kortezubiko semea zan Iturrieta'r Domingo maixuak asi eban, 1555-garren urtean, andik urte mordera, 1608-ko garagarrillaren 5-ean, Korpuzti egunean, leenengo mezea esanik. Udaletxea plazan bertan egoan, baita neska-mutikoentzako eskolea, espetxea ta beste etxe-zisku batzuk be; ta gaixotetxe bat, Basozabal ta Belaustegi andra-gizonak jasoa; onez gaiñera, iltegi, ostatu, botika, denda, aragitegi ta tabernak. Errota, burdiñoia ta olakoak be antxiña-antxiñatik ziran oso ezagunak, eta geogo, onelk gitxitzen asi ziranean. Astepen egin zan burdinfabrika eder bat, Juan Jose Jaurigiren pentzutan.

Inguruetako solo-landa, zelai ta basoak ez dira aberastasun bakoak. Garia, artoa, ta era guztitako garau ta aleak artzen ziran leenago, naikoa ugari. Egurrak, ikatzak eta etxegintzarako zurak, urreko azoka ta saldu-tokietara, erraz doaz nainora, andik eta emendik dituan bide eroetan zear. Uretan be oso aberatsa da, ta or agiri bikain bat, erriak Zubitxean daukan lau txorroko iturri zabal aundia; edaska ta abel-iturri bereziak be ez dira palta, ta ingurumari beste ur-sortbururik naikoa; batzuk urats edo beroak be bai.

ZORNOTZA ERRIZ

Erriz be Zornotza ezta atzo goizekoa. Erdi-aroan bertan ba-eban bere garantzia; gerra leku be beti izan da, esan dogunez, Bizkaiaren biotzean aurkitzen dalako, Auzune



Larrea-ko jauregiaren sarrera. Orain ez dago jauregirik.

asko zuan leen, gaur baiño geiago, ta jauregiak bertan ugari, gaur mendiotako egur-motak iduri, betiko suntsitu ta joanak diran arren. Oneitatik «antxiñakoena —diño Delmasek—, entzuna danez eta kronikak diñoez, Andrandegi deritxona dogu». Aldana, Zornotza, Garai, Zubiaur, Jauregi, Kanzelada, Belaustegi, Ibarra ta Berna datoz ondoren. Gaur auzuneen izenak doguz leen torre-etxe ziran guztiok. Zornotza be, ba, antxiñako baten, leenengo torre-etxe edo jauregi bat zan; gero auzune, ta azkenez, inguru guztiari deitzen jakon Zornotza. Ortik nunbait, Zornotzako medindadea. Ta gaur be, naiz-ta paperetan Amorebieta geiago agertu, erriak Zornotza ta zornotzarrak esan oi dau.

Merindade au XII'garren gizaldi erdirantza jasoa izan zan. Eta ementxe bizi izan zan, luzaro samar, bertoko ibar-jauna (merino) edo bailarako epaikari nagusia. Gero, 1445'ean, Kastroko bildur-gudari «prailleak» deituak Pedro Abendañoren menpeko ziralarik, iñoren pentzura au erre ta a sakabanatu ebiltzanak, su emon eta kiskaldu egin eben. Abendaño onek Zornotzako aaide nagusi batzuekaz burruka gorrak euki ebazan, eta urte-mordo baterako naikoa ondaturik itxi eban ibar guztia. Geroagoko urteetan be, prantses-gerratean eta karlatarrenean, burruka leku bete-betekoak izan ziran inguruetako mendiska ta trokarteak.

1808 garren urteruntz, Napoleon Bonaparteren gerratean, Inglaterrako Blake jeneralak eta Frantziako Lefevre mariskalak Durango ta Zornotza bitarteko ibar-lauan, Euba inguruan nunbait, aurrez aurre ipiñi zituen euren gudari-saillak, bakotxak bere indarrak neurtzeko asmoz. Lefevre-k 21.000 guda-mutil eukazan

eta Blake-k ez gitxiago; baiña ez arek ez onek ez eben adorerik izan elkarri eraso ta oratzeko, gogorrean beintzat. Saio txiki batzuk egin ondoren, bada-ezpadan, gitxiago be bazala-ta, Bizkargirantza jo eban eta andik Bilbora.

Geroago be, entzute andikoa egin zan Zornotza, 1872-gko maiatzaren 22-an, Serrano jeneralaren eta karlisten foru-batzordearen artean izenpetu zan elkar-artze edo bakezko egiuneagaitik Karlistak, gai artako foru-zale zintzoak, eurenal derdikoak gero ta jausi-aulago joiazala-ta, Orokietan, Mañarin eta Oñatin izaniko triskantza, matxura ta ezbearrak biotzean bizi-bizi ikutu ta zirrara galanta emon eutselako, bakezkoak egi-teko gertakizunak antolatzen asi ziran. Baita egin be, batetik Serrano jenerala ta bestetik foru-batzarra osatzen ebenak Zornotzan batuaz. Egia esateko, elkar-artze onetako kondiziñoak ez ziran ain latz gorrak izan, baiña batzuk, Velaskok euren artean, ez zituen orduan be iskillu ta armak itxi nai izan. Eta burrukeak ez eban amairik ikusi Toki batzuetan beintzat aurrera egin, bai, ilketa ta gaiztakeri ikaragarriak alkarren artean egiñik.

Azkenengo anai arteko gerratean, ostera, orain ogeita amairu urte, emen bizi giñeanok dakigu bakar-bakarrik zelako dunbota izan zan alderdi bion artean emengo mendi-bizkar, muiño-egal eta piñudi tringuetan. Gizona beti anker, Kristok irakatsitako elkar-maitasun beroan bizi ezin dana.

Leenago, Madalena egunez, aberferi eder bat egiten zan Zornotzan. Gaur, igandez geienetan, azoka ta plaza egin oi da.

Ogeta bederatzigarren jarlekua artzen eban Zornotzak, Gernikako Batzarkotian.